

**BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA**

Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko planaren baitan kudeaketa lanak egiteko aholkularitza kontratua gauzatzea.

1. Kontratuaren xedea

Segurtasun Sailak Giza Baliabideen Zuzendaritzaren bidez, enpresa espezializatu baten aholkularitza zerbitzuak kontratatu nahi ditu Ertzaintzan, Euskara Erabilera Planaren kudeaketan laguntza emateko eta Plan berriaren diseinuan laguntzeko.

2. Gauzatu beharreko prestazioak

Segurtasun Sailak Giza Baliabideen Zuzendaritzaren bidez, kontratatu nahi duen enpresak Ertzaintzan planaren kudeaketa inplementatzeko eta prozesua egoki antolatzeko beharko den aholkularitza teknikoa emango die Giza Baliabideen Zuzendaritzako Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atalari. Era berean, planaren ebaluazioaren harira, 2018-2028 plangintzarako Segurtasun Sailak egingo duen Planaren diseinuan laguntza emango du.

Enpresa esleipendunak aholkularitza eta laguntza teknikoa eskainiko du, Giza Baliabideen Zuzendaritzako Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atalaren gidaritzapean. Era berean, enpresa esleipendunak Ertzaintzaren Euskararen

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

Dentro del plan para normalizar el uso del euskera en la Ertzaintza contratar la asesoría para la gestión del mismo.

1. Objeto del contrato

El Departamento de Seguridad a través de la Dirección de Recursos Humanos quiere contratar los servicios de asesoría de una empresa especializada para dar apoyo en la gestión de Plan de Uso del Euskera en la Ertzaintza y en el diseño de un nuevo plan.

2. Prestaciones a llevar a cabo

El Departamento de Seguridad a través de la Dirección de Recursos Humanos, quiere contratar una empresa que dé a la Sección de Formación y Normalización Lingüística de la Dirección de Recursos Humanos el oportuno asesoramiento técnico y apoyo tanto en la implementación de las acciones contempladas en el plan como en la evaluación del mismo y en el diseño del próximo plan previsto para el período 2018-2028.

La empresa adjudicataria ofrecerá apoyo técnico bajo la supervisión de la Sección de Formación y Normalización Lingüística de la Dirección de Recursos Humanos. En este orden de cosas, la empresa adjudicataria analizará el Plan de Uso



Erabilera Normalizatzeko Plana aztertuko du, kudeaketa plana diseinatu eta implementatzeko eginkizunei aurre egiteko aholkularitza eta laguntza eskainiko du.

Horrela, planak Ertzaintzan behar duen ezarpen egokia bermatze aldera, enpresa esleipendunak Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atalari zuzeneko asistentzia eskainiko dio; izan ere, enpresa esleipendunak laguntza teknikoa eskainiko dio Atal horri Ertzaintzan Euskararen Erabilera Planaren kudeaketa implementatzeko egingo den prozesuan zehar.

Euskararen Erabilera Planak, Ertzaintzan, helburu eta neurri zehatzak ezartzen ditu, besteak beste, euskara zerbitzu-hizkuntza gisa bermatu eta lan-hizkuntza gisa hedatu dadin. Hori kontuan hartuta, Ertzaintzan gauzatzen diren ekintza guztiak bideratu nahi dira helburu horiekin lerrokatuko diren ekimen planifikatueta. Enpresa esleipendunak horretarako beharko den aholkularitza teknikoa emango du.

Euskara lan-hizkuntza izan dadin helburuari jarraiki, enpresa esleipendunak aholkua emango dio Prestakuntza eta Hizkuntza Atalari, eta eskuhartze zehatzak diseinatu eta implementatu ditzan Ertzaintzan, horretarako beharrezkoak diren talde dinamikak abiatu eta ekintza osagarriak antolatuko

del Euskera en la Ertzaintza, diseñará un plan de actuación y ofrecerá asesoramiento técnico a las actuaciones de desarrollo del citado plan.

De esta forma, y al objeto de garantizar la adecuada implantación del plan en la Ertzaintza, la empresa adjudicataria ofrecerá asistencia directa a la Sección de Formación y Normalización Lingüística. En este orden de cosas, también dará a la citada Sección apoyo técnico en proceso de implementación de la gestión del Plan de Uso del Euskera en la Ertzaintza.

El Plan de Uso del Euskera en la Ertzaintza, establece objetivos y medidas concretas para que se garantice que el euskera pueda ser una lengua de servicio y de trabajo en la organización. Teniendo esto en cuenta, habrá que diseñar diferentes actuaciones de una manera ordenada y estratégica dentro de la Ertzaintza y la labor de consultoría en esta materia corresponde a la empresa adjudicataria.

Al objeto de que el euskera pueda ser lengua de trabajo en la Ertzaintza, la empresa adjudicataria asesorará a la Sección de Formación y Normalización Lingüística y diseñará y ejecutará junto con dicha Sección intervenciones concretas, dinámicas de grupo y



ditu atalarekin batera.

Halaber, enpresa esleipendunak aholkularitza emango du egindako jardueren ebaluazioa diseinatu eta emaitzen analisia egiterakoan, eta, horrekin batera, hurrengo plangintzara begirako neurri zuzentzaileak landuko ditu.

3. Lantaldea

Prestazioa gauzatu duen lantaldea 3 teknikarik osatuko dute gutxienez. Honako banaketa egingo da lantaldeko kideen artean:

- Arduradun bat (zuzendaria/koordinatzailea); enpresa esleipenduneko lantaldekoa, Prestakuntza eta Hizkuntza Normalizatzeko Atalarekin harremana izateko solaskidea izango dena. Berari egokituko zaio lanak zuzentzea, baita kontratua betetzeari lotutako gainerako pertsoneri aginduak eta jarraibideak ematea ere. Prozesu osoan presentzia izango duela bermatuko du.
- Bi teknikari, laguntza eta babesa emango diote koordinatzaile teknikoari, prozesuan zehazten diren gai, elementu eta behar metodologikoei buruz. Arduradunarekin batera prozesu osoan zehar aurrez aurreko presentzia bermatuko dute.

Lanean hasten den taldeak amaitu behar du lana,

otro tipo de medidas tendentes a desarrollar el uso del euskera.

Así mismo, la empresa adjudicataria, ofrecerá asesoría en el diseño de la evaluación de las actuaciones desarrolladas y en el análisis de los resultados, y junto con esto, propondrá medidas correctoras y de mejora para el próximo periodo de planificación.

3. Grupo de trabajo

La prestación la realizarán al menos un grupo de tres técnicos, divididos por funciones de la siguiente manera:

- Un/ una responsable (director/coordinador), perteneciente a la empresa adjudicataria. Será quien ejerza la interlocución con la Sección de Formación y Normalización lingüística. Igualmente, supervisará las actuaciones y dará las instrucciones y directrices precisas al resto del equipo en base a lo establecido en el contrato. Durante todo el proceso garantizará su presencia.
- Dos técnicas/os que en lo referente a elementos y necesidades metodológicas darán apoyo al responsable técnico. Como en el caso anterior durante todo el proceso garantizarán su presencia.

El grupo inicial, en principio, será el mismo



kide berberekin, ezinbestek eragindako kasuak izan ezik. Horrenbestez, lanak gauzatzeko talde egokiena aukeratzea enpresa esleipenduraren erantzukizuna izango da.

Halaber, lan-arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu enpresa esleipendunak.

Gainera, enpresa esleipendunak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Produkzio-antolaketa propioa izatea, beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak izatea, eta baliabide horiek erabiltzea kontratatutako jarduera garatzeko.
- Enpresa-jardueraren garapenak dakartzan arriskuak, betebeharrak eta erantzukizunak bere gain hartzea.

4. Lantokia

Kontratuaren zeregin guztiak enpresa esleipendunak horretarako aurreikusi dituen lokaletan egingo dira, inoiz ere ez Segurtasun Sailaren lokaletan.

5. Mendekotasun funtzionala eta organikoa

Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzak ez du inolako loturarik izango langile horiekin (ez

que concluya el trabajo. Por lo demás, será competencia de la empresa adjudicataria seleccionar el equipo de trabajo más adecuado.

Así mismo, será competencia de la empresa adjudicataria cumplir con los requisitos establecidos en el campo de la prevención laboral.

Igualmente, la empresa adjudicataria cumplirá con los siguientes requisitos:

- Contar con producción y organización propias, contar con suficientes recursos humanos y materiales, y emplear dichos recursos en el desarrollo de la presente contratación.
- Asumir los riesgos, requisitos y responsabilidades derivados del desarrollo de la gestión de la empresa.

4. Centro de trabajo

Todas las tareas de la empresa contratada se realizarán en los locales previamente previstos por la citada empresa, en ningún caso en locales del Departamento de Seguridad.

5. Dependencia funcional y orgánica

La Dirección de Recursos Humanos del Departamento de Seguridad no tendrá ninguna



lan-harremanik, ez kontraturik, ez harreman funtzionalik, ez bestelako loturarik), ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez amaitu ondoren.

Horrenbestez, Giza Baliabideen Zuzendaritzak ez du inolako erantzukizunik izango hirugarrenei eragindako kalteengatik, enpresa esleipendunaren legezko ordezkarien, enpresako kolaboratzaileen edo zerbitzu ematen diotenen ekintzen edo omisioen ondorioz.

6.- Lanen jarraipena

Plegu tekniko hauetako bigarren puntuan gauzatu beharreko prestazioei buruz xedatuta dagoenaren arabera, enpresa esleipendunari dagokio kontratu honen xede diren lanak ondo egiteko langileak izendatzea. Hala ere, enpresa esleipendunak bermatu beharko du bete egiten dela Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzako Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atalak eskatutakoaren arabera hitzartutako lan-egutegia. Aipatutako Atalak lanerako kronograman zehaztutako zeregin bakoitzaren eraginkortasunaren, efizientziaren eta kalitate-mailaren jarraipen prozesuaz arduratuko da, kontsulta-aldiak iraun bitartean helburuak eta kalitate-irizpideak betetzen direla bermatzeko. Era berean, Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza

vinculación (ni de trabajo, ni contractual, ni funcional ni de ningún otro tipo) con estos trabajadores, ni durante ni después de la vigencia del contrato.

Por tanto, la Dirección de Recursos Humanos, como consecuencia de acciones u omisiones de representantes legales, colaboradores o de quienes den servicio a la empresa contratada no tendrá ninguna responsabilidad por daños a terceros.

6. Seguimiento de los trabajos

En lo referente a las prestaciones a llevar a cabo establecidas en el punto dos del presente pliego técnico, le corresponde a la empresa contratada nombrar a quienes realizarán los cometidos establecidos. Igualmente, dicha empresa garantizará el cumplimiento del calendario de trabajo establecido por la Sección de Formación y Normalización Lingüística de la Dirección de Recursos Humanos. A su vez, esta Sección será quien realice el proceso de seguimiento de la eficacia, eficiencia y calidad de cada una de las medidas abordadas, para de esta forma poder garantizar durante el periodo de consultas el cumplimiento de los objetivos y de los criterios de calidad. También corresponde a esta Sección de Formación y Normalización Lingüística el



Atalari dagokio ziurtatzea lanak behar bezala egingo direla, eta baita egin beharreko lanen kalitate-maila kontrolatzea ere.

Enpresa esleipendunak, bestalde, lan guztien koordinazioa eta jarraipena egingo du. Era berean, lan-prozesuen koherentzia zainduko du, eraginkortasun- eta efizientzia-irizpideak erabiliz, eta uneoro erantzungo die Giza Baliabideen Zuzendaritzako Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atalaren beharrei.

garantizar que los trabajos se desarrollan correctamente y el control del nivel de calidad de los trabajos realizados.

Por otro lado, la empresa contratada realizará la coordinación y seguimiento de los trabajos y cuidará la coherencia de los procesos de trabajo, para lo que empleará criterios de eficacia y eficiencia respondiendo a cada requerimiento de la Sección de Formación y Normalización Lingüística de la Dirección de Recursos Humanos.